

Surfa, begiak itxita

A zer gauza zoragarria olatuen gainean ibili ahal izatea! Uhina datorren bakoitzean, bihotzaren taupadak bizkortu egiten zaizkio surflariari. Mugarik gabeko grina sortzen du surfak pertsona batzuegan. Bestela ez legoke Aitor Frantzesenaren kasua ulertzerik!

Aitor Zarautzen jaio zen 1970ean eta jaiotzatik begietako glaukoma diagnostikatu zioten. Baina hori ez zen oztopo izan haren pasioari bide emateko.

Gaur egun erabat itsua da, eta haren barne indarrak mundu mailako erreferentzia bihurtu du surfaren alorrean.



Hurrengo elkarriketak Aitor bera eta haren kasu harrigarria hobeto ezagutzeko aukera emango dizu:

Nolakoa izan zen zure hasiera surf munduan?

Ni ezkutuan hasi nintzen surfean. Etxekoek ez zidaten surfa egiten lagatzen, begietako gaixotasunagatik. Baina haiek ezetzean zenbat eta tematiago, ni orduan eta gogotsuago! Lagun batzuekin surf-oholak egiten ikasi nuen, eta haixek izan ziren erabili nituen lehenengo oholak.

Nola pasatu zinen surf egitetik proiektu profesional bat abian jartzera?

Azkenean, nire familiak onartu egin zuen nire zaletasuna. Onartu eta lagundu. Pentsa, bazkalorduak itsasaldien arabera egiten genituen etxean. Gero, surf-oholen lantegi profesionala ireki nuen baserrian. Gure aitona-amonek ere asko ikasi zuten surf-oholei buruz!

Ondoren, surf-eskola etorri zen, ezta?

Bai, handik urte batzuetara Zarauzko surf-eskola ireki nuen. Hasiera zaila izan zen, aurretik ez

zegoelako oinarririk. idatzizko

Guk metodologia bat proposatu genuen, eta zorionez gaur egun hainbat surf-eskolatan erabiltzen da. Gazte hasiberriei surfa jolas moduan hartzen irakasten diegu. Baina argi

utzita gora heltzeko gogor entrenatu beharra dagoela. Zorrotza naizela diote batzuek. Nik aurrerabidea erakutsi besterik ez diet egiten.

Nola egin diozu aurre gaixotasunari?

Trabaz jositako bidea izan da. Begietako gaixotasunarekin jaio nintzen. 14 urterekin eskuineko begia galdu nuen. 2011. urtean, olatu batetik erori eta ezkerrekoa galdu nuen. Erabat itsu geratu nintzen orduan, 43 urte nituela. Zorionez, ikusmena galdu aurretik, nire inguruari arretaz begiratzen nion, eta nire buruan argazki asko ateratzen nituen leku horiek betiko gogoratzeko.



Askotan surfa itxurarekin erlazionatzen da: gazte ederrak ingurune zoragarrietan... Baina gera gaitzen Aitorren izaerarekin, beraren kemenari esker 2016an Munduko Surf Egokituko txapelduna izatera iritsi baitzen.

Ikasbil (moldatua)



Surfa, begiak itxita

ULERTZEKO ASMOZ

1.- Aukeratu. Surfari lotutako zein lanbide izan du Aitor Frantzesenak?

- a) Surf-oholen egilea. c) Surf-irakaslea. b) Surf-kazetaria.

2.- Erantzun galdera hauei.

Zer gaixotasun diagnostikatu zioten txikitan?

Zer txapelketa irabazi zuen 2016an?

Zer argitaratu zuten Zarauzko surf-eskolan? Zertarako?

Nola irakatsi behar zaie gazte hasiberriei? Zer uzten diete argi gazte hasiberriei?

Zer egin zuen Aitorrekitsu gera zitekeela jakitean? Zertarako?



3.-Zure ustez, zein da testuaren helburua?

- a) Aitor Frantzesena eta surf egokitua ezagutaraztea.
b) Surfari buruzko informazioa ematea.
c) Surf egokituari buruzko iritzia ematea.

HIZKUNTZA LANGAI

4.-Zer esan nahi du azpiko esaldiak? Azaldu zeure hitzak erabiliz:

«Nire buruan argazki asko ateratzen nituen leku horiek betiko gogoratzeko».

5.-Testuak Aitorren ezaugarrien berri ematen digu. Aukeratu izenondo hauetatik Aitorri dagozkionak.



+

+

+

+

+

+

7.-Ezagutzen al duzu ezgaitasunen bat duen kirolaririk? Bilatu hurrengo pertsonen buruzko informazioa Interneten eta egin haien deskribapen laburra.

Richard Oribe



Noiz jaio da?

Zer da?

Zein txapelketetan parte hartu du?

Zer irabazi du ?

Rakel Mateo



Noiz jaio da?

Zer da?

Zein txapelketetan parte hartu du?

Zer irabazi du?